

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

### **Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Lehenengo web orrialdea bat gure eskaintzarekin eta helbide elektroniko bat behar dugu gure bezeroekin harremanetan jartzeko. Lokal batean proiektua aurrera eramango dugu eta bezeroak ere lokalera hurbildu ahal izango dira. Ondoren katalogo bat sortu non jantziak, musika, kokapena...egongo dira bezeroek zer aukera dituzten jakiteko eta gustukoena dutena hautatzeko.

Gero beste enpresa batzuekin hitz egin behar dugu oinarritzko elementuak lortzeko eta hortik aurrera produktuak erosi eta sortuko ditugu. Horrez gain pertsonak eduki behar ditugu kontuan, web gunea sortzeko, deientzako, antolaketarako..., hau da, proiektua aurrera joan dezan. Proiektuan 4 baliabide motak erabili ditugu hau da: baliabide fisikoak (kotxeak, bankuak), baliabide intelektuala (gure imaginazioa, originaltasuna.), giza baliabideak eta finantza baliabideak.